

GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUNA UZEI-KO LEIRE ZENARRUZABEITIRI, EPAITEGIETAKO INPRIMAKI BATZUETARAKO EUSKAL EGITURA BATZUEZ

Gasteizen, 1998ko azaroaren 2an.

Bi ezeztapen dituen egitura baten itzulpenaz egiten diguzue galdera: “de no comparecer ni alegar causa justa que se lo impida...”.

Egia da perpaus batean bi ezeztapen ditugunean esanahia ez dugula ongi ulertzen kasu asko eta askotan (adibidez, “*dirurik gabe etortzen ez bazara, ez duzu liburua erosiko*”); azkenean ez da erraza izaten zer esan nahi izan den jakitea). Hala ere, kontsultan eman duzuen kasuan ez dirudi zailtasun berezirik dagoenik ongi ulertzeko (ulergarriak eta egokiak lirateke zuek egindako itzulpena bezalakoak, “*eta bidezko arrazoirik eman gabe judizioan agertzen ez bazara*”).

Arazo hori saihesteko ematen duzuen egitura (“*agertu ezean bidezko arrazoirik alegatzen ez bada*”) baino errazagoa da gure ustez goian eman dugun lehena. Hori bai, agian ordena aldatuta erraztu liteke kontua (“*judizioan agertzen ez bada bidezko arrazoirik eman gabe*”).

Bestalde, Gramatika batzordearen ustez, beste egitura batzuk ere izan litezke kasu honetarako baliagarri. Hala nola,

— “*judizioan agertzen ez bazara bidezko arrazoirik ematen ez duzula*”,
edo

— koordinazioaren bidez, “*bidezko arrazoirik (eman) ez eta judizioan agertzen ez bazara*”.

Adeitasunez, agur.

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria